Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jean-Baptiste Vivier

Bardoze, Lapurdi
(1921-2015)



Aurkibidea

Biografia



Bardozeko Legarre auzoko Ipharragerrea etxean sortu zen Jean 1921.urtean, familia euskaldun batean. Gurasoak bardoztarrak zituen: aita Ibarburua etxekoa zen, eta ama Salako bordakoa, biak maizter seme-alabak. Bardozen aspaldi nahasi ziren euskaldun, gaskoi eta frantsesak. Txikitan, bere lehendabiziko bi auzoetako bat gaskoia zen, bertzea euskalduna. Apezek, ordea, frantsesez egiten zuten. Jean-Baptistek hiruak (euskara, gaskoia eta frantsesa) oso ongi menderatzen zituen. Laborantzatik bizi izan da Jean eta Bardoze ez du zerbitzu militarra egiteko baizik utzi. Hainbat urtez herriko kontseiluko kide izan zen. Bardozeko lehen auzapez ordea izan zen 1977tik 1983ra arte, Pierre Laborde auzapezaren lehen kargu denboran. Elkarrizketa egin genion garaian sortetxean bizi zen bere alaba eta bilobekin.

Zintak

BDZ-001

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Data**: 2012-12-12
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Laborantzako aldaketak

- **Erref**: BDZ-001/003
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:05:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Jean ume zela, ia etxe guztietan laborantzatik bizi ziren. Ezkondu zenean, zazpi hektarea baliatzen zituzten bizimodua aurrera ateratzeko. Orain, alabak askoz hektarea eta abere gehiagorekin, ez du bizitzeko beste lortzen.

Transkripzioa
- Gero, txikia zinelarik, hemen Bardozen eta, denak laborantza etxeak ziren?
- Ba, ba, ba... gehientsiak, izigarri eta, oai, ta oai ez da /ezta/ laborantxaik gehio. Hemen, kartier huntan, bazien hogoita lau etxe, ta denak laborariak, denak [laborantxatik] bizi. Bazien sei kuple artio, zera, etxe bakotxetan, denak etxen bizi. Ba zunbait aldiz, bazien zazpi, zortzi mahainian baderen, bardin. Eta etxe ttipiño bat hemen, ni hasi nizalaik, ezkondü nizalaik, zazpi hektara bazien, eta oai, bana hoon alaba, alaba ttipia, ezkondia ta Akamarreat, badituzte /batuzte/ berrogoi ta hamar [...] haragiaandako, blundak, iten dituzte /itentuzte/ hemengua eta Akamarrekua hirutan hogoi hektarea bederen arto, bihi... bihitzeko, eta eztit asko oono bizi! Juan behar dute /behaute/, hoon alaba, hoi, ene alaba ttipia da, ba eiten ditu /eitentu/ "des... des ménages", "femme de ménage", egun oroz, jendeen xeka hunat utzia du neska, neska, alaba hor, jende xeka ixtantian.
- Eta lehenago, gutiagorekin, gutiekin...?
- Bo! Ez da /ezta/ ez ta ez, eta oai, hogoi ta lau etxe hoietaik, laborantxatik bizi dienak, bizi dena, pentsa, ez [...] pentsa beharba zunbat geldi... gelditzen den... Baño bera! Hogoita lauen gaiñen. Bestiek denak laborantxa abandonatia dute.

2. Auzoen arteko elkartasuna egunerokoan

- **Erref**: BDZ-001/004
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:05:29. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Gurasoekin eta aitatxi eta amatxirekin bizi izan zen. Auzoen artean lanak beti elkarrekin egiten zituzten. Arto-zuritzen hogeita hamar-berrogei jende biltzen ziren. Zerri hiltzeetarako, etxe batetik besterat pasatzen zuten negua. Zerriaren puskak auzoei banatzen zitzaizkien. Apaizari ere eramaten zioten.

Transkripzioa
- Etxe honetan, gaztea zinelarik, zenbat zineten?
- Ba, e... ez zen iten nunbre. Ba halee baginden biga, lau, aitatxi eta amatxi ezagutu ditut /ezaututut/ [...] ez da /ezta/ oono mutil bat hartzen gaiñien.
- Eta aitatxi eta amatxi hemengoak ziren ere bai?
- Hemengoak ere. Sortiak eta oro Bardotzen.
- Eta auzoekin eta orain baino gehiago elkar laguntzen zen?
- Ba! Bo etzian ere, ez dugu /eztuu/ konparatzen ahal. Etziten lan bat iten

elgarrekin izan gabe! Eta, be... zera nion... hooi hoietan, maxinekin joiten ginen, ez zen oai bezala, lana gaiñen ez... biltzen zien denak elgarrekin, artoa, arto xuitzen, "dépouiller les maïs", Hogoita hamar, berrogoi jende, auzoak oro, biltzen zien hemen, bihaamunien bese auzuen. Zerri hiltziak: neguia pasatzen gindien, hiltzen gintien zerriak, neguia oro pasatzen gindien auzoetetaik besetaat ...
- Eta zenbat, etxe bakoitzean, zerria hiltzen zen batto? Bat?
- Ba. be ta bi eta hiru zunbat aldiz. Bat ederra, geo bestea ttipixooñoa, geo zunbait jende zen. Bazen haur ere anhitz oai baiño gehio... Hogoi familietetan zonbat badie? Hiru balin badira... Puh! Familia handia da! Ordian bazien bortz, sei, zortzi, hamar, hor sei behar zen hil e!
- Eta zer egiten zen gero zerriekin? Zer puska, zer puska egiten ziren?
- Etxeko [...] züten beti bizpahiru, gizentzeko, seko hiltzeko.
- Eta zer? Odolkiak, xingarrak...?
- Xingarrak, odolgia. Odolgia bazen usaia, nik, guk hiltzen gindien zerria. Juanen gindien, juanen ginden, ekartea auzoetaat, "tout... autour", inguru... ingurien. Borzpasei, sei zazpi, ez zen "congélateur"ik oai bezala, ordin ez zen kontserbatzen... Partitzen gintzien auzoetan, eta auzoek gero berriz ekarten zuten bere "tour"ien... Bo!
- Eta, batzuk apezei eta eramaten zioten, zuek ere bai? Apezei eramaten zen, puska zerbait?
- Bai, "le... le"... fileta! Erten zuten geo... erten "odolgiak"... "tripotak".

3. Aita-amek gasna nola egiten zuten

- **Erref**: BDZ-001/005
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:12:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Sei-zortzi behi izaten zituzten esnetarako eta aita-amek gasna egiten zuten saltzeko. Gasna egiteko prozesua azaltzen du.

Transkripzioa
- Gero, zerriak, eta gero ardiak edo behiak, edo... ardirik ez?
- Ez. Ba... ardi güti.
- Eta behiak?
- Behiak?
- Zenbat bazenituzten?
- Bo... sei, zazpi, zortzi buru!
- Eta zertako zenituzten? Haragientzat edo, edo...?
- Esnia.
- Esnea?
- Esnia. Hemen iten zuten aita-amek gasna anhitz beren... be... etxean oono. Ta saltzen zituzten /saltzentzuzten/ etxetik beretik. Zeren esneen biltzaldia, pasatzen zen gaiñeko bidien, bideküützien, bide handien, bana etzen heldu kartier ttipi orotaat, ordin nahi zienak ein zeit, behar zien gasna ein, ta saltzen zituzten /saltzentzuzten/ gasna etxen berien, ta bazien marxentak, bortzetan iten [...] gasna biltzen.
- Eta gero, oroitzen zen nola egiten zuten gasna?
- Ba, aise!
- Gasna nola egiten zuten?

- Einen oono ere gasna oai nik.
- Hola, eskuekin?
- " La " prezüra, "la présure", epel ernia, erapetik bezala zen, ez bero ez hotz oono, erdi untsa eman, etzen hainbeste furneguik e. Baiño furnegua zen eta oono bate gabe, ni oroitzen niz, eskuaekin, zera... "à la cheminée ". Prezüra eman, bil gasna, oren baten burian edo holako zeit, ta halee zen, nula ari izena... "des garlandes", zer... "garlandes" atxiiteko, errun batzu, eta bazien, eta " il me semble que ce que je vois ", urta erretzen zitien, gasna " du jambon brûlé ", iten zien süia, sü bat [ederra], ta han behin büüz eman, geo ken hantik, eta eskiekin ütz. Etzien hotzik pasatzen eskietan. Ützülika gasna "tour"ian "tour". Dena pikoka, denak... Ba, gio abiatu zuten Zuhienetako plazan, ... zeen behar zen, eskiak beotzen gintien, zen behar... zerak... " avec le..., le chauffe-gaz " maxina erretzeko. Haakilan erretzen zuten gasna "tour"ian "tour".

4. Molde guztietako artoa

- **Erref**: BDZ-001/006
- **Iraupena**: 0:05:23. **Hasi**: 00:12:37. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Etxeko artoa izaten zuten, oiloei eta emateko. Lehen molde guztietako artoa izaten zen: gorria, beltza, zuria... Ogia eta arto-irinarekin "mestura", biak egiten zituzten. Sei-zazpi mando ibiltzen ziren errotara bueltaka. Egun bakoitzean kale bati tokatzen zitzaion. Mestura janda, aseta gelditzen ziren.

Transkripzioa
- Zer? Artoa, ogia?
- Ba, bietaik poxi bat. Artoa, zerrien gizentzeko [aitzeko] gehien bat, oilloendako, etxeko.
- Oraingo bezalako artoa zen edo bertzela...?
- Ez, ez, ez... Etxeko... erraten gindien "le maïs", "etxeko artua". Oai jin da arto amerikano hori. Hastetik, fu, etzien ddeus balio! Ez [...] nahi ee. Etziela irinik eta etziela heengo artua... ba bestie baiño gehio ekarten beitzuten. Eta bestie baiño gehio ekarten beitzuten, jendea plantatu hartarik ereiten.
- Eta nolakoa zen artoa ...? Gorriagoa? Gorriagoa edo...?
- Bazien... molde eta, molde guzietakoak. Bagindien gorri beltxa kategoria bat, gero bazen xuria, xuria, zera... erraiten [...] zutena, oai "pour..., pour gaver les oies". Nola erraten da...?
- Barkatu, antzarak?
- Bai.
- Eta gero, e, horrekin irina egiten zenuten?
- Bai, ni banin eta [...] ... puta, azkarra zen enetako. Zera... mestura, "la méture", arto irinaekin. Ogi irinaekin eiten zuten ogia, eta zera... denboa, ogia iteko denboran, eiten zuten ere "la méture", mestura. Eta ez zen batee gaixtoa. Untsa erria balin bazen eta iten zituzten /itentzuzten/ goizetan eta esniaekin eta ez zen oaiko pestaz...
- Eta non egiten zen irina? Irina? Errota batean hemen? Eihera batean edo...? Irina, non egiten zen?

- Ba, ez... hemen, hemen Bardotzen berien. Eta Bidaxünen eta bese herrietan ere bazen orotan, bazen orotan, zera... eiherak, eta bazien, ez zen xeka jüiten, eta gizon, nula erten gindakoten... "Ihazaiñak". Xeka heldu zienak, kartier bat eun, kartier bat bihar, eta iten zuten Bardotzeko "tour"a. Sei, zazpi mando elgarren ondotik estekatiak, denak kargatiak zakuz, eun juanen zuten bihia, bihaamunien ekarten zuten irina. Kilo bat, atxiiten zuten kilo bat, hamar kiloondako. Ihazaiñak [...]. Eta geo, bihaamunian, irin huak ekarten zuten, eta berriz halee [...] beste kartiera eiteko irina heendako. Ta zunbaitek eiten zuten biziki ogi una, ta mestura ere. Bota mestura [...] nik untsa eina. Iten zuten, zer... eta platana hostuak, "des feuilles de platanes" eltze batetan "tour"ian "tour", irina emana, eta ematen zien gustüat eta ez batez ee, eta geo bihaamunien trantxaka suian ondoen, erretzen zuten, "grillé"... Hua porroka esnien barnien untsa [...] zen jaten zatan hartaik... "un bol", bola bat...
- Katilu bat?
- Ba, ez, han, ez ez ttipia. Etxeko andeenetaik, untsa mesturaz artoaekin betia. "Ale, jan hua" eta ez zen [...] ez debruik ez. Izandako gizona libro.
- Eta, ez zen orain bezala jaten ez lehenago ez? Zer jaten zenuten?
- Bo...
- Berdintsu?
- Ez, pentsa te! Bazen behin bat ogi, ez [...] gaztek ez lukete nahi mestura hori.

5. Gaskoin hizkuntza Bardozen nagusi

- **Erref**: BDZ-001/008
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:18:56. **Bukatu**: 00:22:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Biarnesak euskaldunak baino gehiago ziren Bardozen. Gaskoinez hitz egiten zuten. Ahal bezala moldatzen ziren elkar ulertzeko. Zenbait hitz ikasten zituzten bortxaz. Anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa
- Hemen, Bardozen, denak ez ziren euskaldunak, ez?
- Ba, ba, ba... abantziaik ee. Denetaik bazen, biarnesak, beharba eskualdun bano gehio.
- Eta haiek, beren mintzaira bazuten? Beren..., haiek..., gu bezala mintzatzen ziren, edo bertze... gaskoinez egiten zuten?
- Gaskoinez.
- Eta nola egiten zenuten konprenitzeko?
- Ah! Ahal bezala...! Ostian erraiten beinien, manera gazte denboran, haur denboran, bat Oxandaboure, eskualduna, ez zien hitz bat frantses konprenitzen! Heen, bon ama eta izan ziten Parisen eta bazitakiten poxi bat. Beste auzua, bestea... hor, undduen, ez zien hitz bat, eskuaraik, ez frantsesik, eta kaskoina [...] frantsesa bazien poxi bat, konprenitzen ahal zen ba. Bana eskuara... zero e! Ez zien konprenitzen ahal elgar e!
- Eta orduan, haiekin mintzatzeko, nola egiten zenuten? Nola, nola mintzatzen zenuten?
- Bai... zunbait hitz... ikasten zen beti, bortxaz edo... keiniekin edo...

zunbait hitz ikasten zen bortxaz e. [...] aldi bat hemen, zer... eskualdunak, puh, hasi zian bortz, sei haur, ... sei haur, bederen, "si c'est pas...", ezpada zazpi oono. Eta amatxik igorten zitien haurrak, zare batekin, eske. Eihean, batek eman zitien bizpahiru patata, beste batek aza bat, beste batek porru poxi bat, ta heldu da hunat bat, etxe hortakoa zen: "Ah, amatxik erran daut ekartia bizpahiru pastenagre". "Pastenagria", badakizia eskuaraz zer den?
- "Karrota", ez?
- Ba eta guk "karrota" gindien e! Ah, "pastenagria" ze debru zen... animale hori!? Ta galdeiten ditut /galdeitentut/ ttanttari hemen, ene ama errenpresatu ziena: "badakizia eta pastenagria zer den?". "Ta karrota mutikoa!". "Ah, bon!". Eta hemen [...] dute bizpahiru karrota, bizpahiru pastenagre. Hori beti [geldituko] zaut...

6. Euskararen galera Bardozen

- **Erref**: BDZ-001/009
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:22:02. **Bukatu**: 00:24:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Baziren gauza berarentzat hitz desberdinak euskaraz ere. Euskaraz mintzatzen ziren. Orain bi milatik hogeita hamar inguru izango direla uste du.

Transkripzioa
- [...] hitz oai bezala bai [...] eskuaran, ez zienak konprenitzen elgar. Zera... lurraan gaiñen pasatzeko, "rulegua"...
- Zer?
- "Rulegua". Zera... ez da, ez da gehio ez hori. Harrizko... trunkua... trunko... trunkua. E be, guk erraiten gindakon "rulegua". Beste batzü lekütan "trunkua", beste batzütan "trunkumullua". Bazen... eskuaran mintzatzeko... diferentzia anhitz.
- Eta herrian, nola mintzatzen ziren? Gaskoinez, edo euskaraz, edo frantsesez? Herrian? Frantsesez?
- Ah? Bo, "oui, oui". Ba, eskuara ere mintzatzen zian herrietan. Anhitz, oai bano gehio oono. Oai... bo... Bardotzen, [...] segur niz diela bi mila buru jende, pff... badia... hogoita hamar mintzatzen dutenak eskuara. Ez niz segur batee. Ein dut, juan..., atzo edo..., [...] nintzalaik, ai nintzen, "zunbat gelditzen die eskualdun?". Bah! Kartier huntan ezta bihik. Beste "quartier de Gatzarran..., oui, y'a Maikabar", emazteki bat, ehun urte badienak ixtantien, eskualduna ere, arnegitarra... Ah ba, ohartarra hori.

7. Frantsesa, gaskoina eta euskara

- **Erref**: BDZ-001/010
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:24:04. **Bukatu**: 00:27:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Frantsesez eskolan ikasi zuen. Gaskoinak bertakoak ziren gehienak; euskaldunak kanpotik etorriak ziren gehiago. Katekesia frantsesez izaten zen, apaizak hala mintzatzen baitziren. Ez dago orain ia euskaldunik. Oraindik gaskoina mintzatzen dute batzuek.

Transkripzioa
- Gero, eskolan...frantsesez, non ikasi zenuen frantsesa zuk? Etxean, edo bertze... kanpoan?
- Eskolan.
- Eskolan.
- Etxeen anhitz eskuara mintzatzen zuten, eskuara, eskuara bezikan, ez nakien frantses hitz batee. Juan nizalaik, beharbaa zunbeit hitz, ama... eguna... eguna beitzen Parisen, hogoita hamar bat urte...
- Eta gaskoiak, hemen... hemengoak ziren, edo kanpotik etorriak?
- Bo, hemengoak... hemengoak. Gehientsiak. Eskualdunak [...] zien kanpotik jinak gehio. Kaskoina zen... hemengoa.
- Eta katiximara eta joaten zineten?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Eta juan behar beitzen.
- Eta han, nola? Frantsesez?
- Frantsesez.
- Apezak, apeza eta mezak eta dena frantsesez?
- Eiten, eitzen zuten ahal bezala!
- Eta gaskoiz egiten zuten?
- Ez... ez.
- Eta euskaraz?
- Behar [...]. Bo... eskuara noizian ba. Kateximan, bazian eskuaraz iten zutenak, apezak.
- Ba, bertzeenez, aspalditik hemen, euskaldun guti da orduan?
- Bai, bai, bai... oi... fini! Ezta... pfu... beste bat, beste kartier baten, [...] niz, atzo edo... ikusten zunbat gelditzen zen. Pff! Ez dia, segur niz ez diela hogoi eskualdun, Bardotzen orotan. Hori, pff, eskola, ikastola hoiekin... zunbaitek...balin ba... Bastidan bada medikü bat, haurrak igorri ditu / igorritu/ ... ikastolaa. Pff... ikasiko dute! Bana, hemen etxetan zero! Ezta gehio... ez duzu baño atxemanen eun e.
- Eta gero, gero... orain aldiz, gaskoia mintzatzen direnak badira gehien?
- Ba! Kaskoina bada oono. Mintzatzen dute oono. Aise segur ikasten da beharbaa ere... eskuara, hu, batee ez dienak, aita-amak, ez ez batee eskuaraik etxen [...] juan du. Ikasteko gio... Eskola hoietan ezta [...] ez? Umen...

8. Heriotzaren inguruko ohiturak

- **Erref**: BDZ-001/014
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:32:26. **Bukatu**: 00:34:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Norbait hiltzen zenean, apeza ekartzen zen. Auzokoak etxera etortzen ziren. Hil-kapera ezartzen zen eta gau osoz beilatzen zen. Gertakari baten berri ematen du. Bi auzoak gurutzearen xerka joaten ziren eta lehenbiziko auzoak eramaten zuen.

Transkripzioa
- Etxe batean edo, norbait hiltzen zelarik, etxe batean, nola... nola izaten zen etxe batean norbait hiltzen zelarik?
- Bo...
- Apeza ekarri behar zen edo... auzokoekin edo...?
- Apeza. Medikia? Pff. Hila hila. Ez zien oai bezalako ixtorioik ez.
- Eta auzokoak etortzen ziren etxera?
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Etortzen ziren?
- Bai. Eta denbora batez, oai heldü zautak, inten zütian "la chapelle ardente", heen bezala, ezkaatzien hor. "Une...", nola erranen nuke...? "Une petite chapelle, avec des draps de lit".
- Eta hor egoten ziren gero gau guzia auzokoak?
- Bai, bai, bai, bai.
- Otoitzean? Edo beilatzean, edo...?
- Ba, beilatzen. Gio arribatu dituk /arribatuk/ ... hor, auzo batetan hil zen [...] gindian hila, goizien, goiz batez. Ta... mutiko ez..., ezkontzekua zien, "célibataire". Ta deitzen zata auzoak erten [...] : "Bo, eztaki, bardin hau eztu nehorat juanen. Eztaki ze inen dien, ofea juanen gitu /juanentu/ biak. Bia beiginden beti. Ta, bardin. Bo, ni bano hürbilo hil zena, ofea juanen ten gu biak. Ta han gindien ba hila bihaamun.
- Eta... e... gero, gurutze... joaten ziren... joaten ziren gurutzea bila elizarat, edo hemen ez zen egiten?
- Joiten zen, kuutzien xeka, bi auzoak.
- Bi auzoak. Eta gero, nork... nork eramaten zuen gurutzea? Lehenbiziko auzoa?
- Bai. Ez bazien samur segurik.

9. Ezkontzerakoan, maila soziala bereizgarri

- **Erref**: BDZ-001/015
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:34:43. **Bukatu**: 00:37:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Ezkontzerako orduan, etxejabeak etxejabeekin batzen ziren eta bordariak bordariekin. Dotea eman ahal zutenek ematen zuten, besteek ez.

Transkripzioa
- Gero... nola egiten... esposatzeko, eta nola egiten zen? Joaten zen... zuk hautatzen zenuen nahi zenuen neska eta... haren aitari galdetzen edo... nola... nola pasatzen ziren holakoak?
- Ez zen oai... oai bezala ez. Behar zen, e, proprietarioa bazinden, ez zen hartua neskato bat, ddeus ez ziena e! Proprietarioa proprietarioekin, eta bordariak...
- Bordariekin?
- Bordariekin. Eni geo... ezta... sanjatu da fite ba. Bana ba, diela berrogoita hamar urte oono, hu, iten zuten... "les"... iten... zera...oono. Halta, e, bordarien neskatoak egon neskatxak, beste bezen balio esposatzen zunbait aldi gehio bana... bo! Izkuntzen duk... izkuntzen duk oono... debria

neskatu pitxar horrekin. Bordari baten alaba balin bazen...
- Eta... e, gero, orduan, zer, dotea edo eman behar zuten neskek? Ez, edo bai?
- Bo, ez. "Si" bazuten... bazuten etxetan, juiten ziten... zeit, beti... uf... "les draps de lit et le..."...
- Bai, mihiseak edo?
- "Le", nula [...] "la dot, quoi". Ta hemen, ezkondü nizalaik, emaztiaan etxe... etxeik ondokuak, jin zintian oono e, be, idia bazütian, estali xuriaekin eta, bezpe... bezperan, ekartea... ganberan... behar... behar zien gauzak.
- Eta zer? Zuk gostukoa hautatzen zenuen edo... edo aita eta amek errana? Nola izaten zen?
- Bah e... aita-amek emaiten zuten zurra, oai baino oai ez zuten zurrik nik uste! Baten bilen ba! Ordin juiten zutena ... horietan bazen... ni neska... neskatxo hori agradatzen zautan, gero, hem, bordari neskatoa balin bazen, erranen zuten: "Bai... eta, ez zuiñekin bizikoik? Zeekin bizikoik? Ezta ddeus... ddeus ekarten... ez ziten ddeus ekarriko!".

10. Gorriak eta zuriak

- **Erref**: BDZ-001/017
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:39:32. **Bukatu**: 00:42:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Gorriak eta zuriak izaten ziren Bardozen. Zuriak apezen aldekoak izaten ziren eta gorriak apezen kontrakoak. Bere aitak kontatzen zuen zuriek eta gorriek elkar jotzen zutela hauteskundeetan. Jeanek kontseiluan parte hartu izan du eta bietakoak ezagutu ditu.

Transkripzioa
- Gero, erraten dute zenbait tokitan baziela "zuriak eta gorriak"... Baziren hemen ere... gorriak eta...?
- Bazen eta, eta... eta bazen eta... dü... dudaik gabe! Elekzionetan eta, gero zapartakan, ukaldikan...
- Aritzen ziren? Eta zertako ba?
- Ni ez niz...
- Zertako aritzen ziren hola?
- Bah! Eta... bazen apezaan... apezaan partitian, "le... les blancs", xuriak, eta bazen, beti, apezen kuntrakoak! Ez zituzten /etziuzten/ apezak ikus! Bardotzen ai dien... ai, ai, ai! Ze... ez beitzen sekulan mezaa juiten eta... eta mera zen... Bardotzeko mera, eta bazitian adiskide handiak, hori elekzionetan. He, adiskide handiak, hek, meraan alde plantatzen zien eta bazen beste... beste ekipa bat, mezaat juiten zienak igande oroz, eta hek, ez zien unak!
- Eta mera, zer zen? Zuria edo gorria?
- Gorria! Bah, izan die... Egun duk oai dela hogoita lau urte kontseilien, ta pasatu ditiat /pasatutiet/... bon, lehen mera... gorria, bigarrena... xuria, ah, beste oro xuriak halee. Gorriak finitüik izan die. Oai... pff... pasatia duk [iauko] hori poxi bat. Eztie gazte gehiago... Ba, partitüa bai. Ni [...] lagunak [...] lagunak.
- Eta zer, euskaldunak zer ziren? Zuriak?

- Xuriak gehienak ba.
- Eta gaskoinak?
- Bo... ootaik.
- Orotarik?
- Ootaik. Bazen ootaik.
- Eta zer aritzen ziren? Joka elkarri?
- He! Elekzione... nik eztut ikusi. Bana entzun dut aitari hemen errekontatzen , ordian ezta... ezta oaikoa! Eskaler, eskalerer behera zili... zilipartakan... gizonak [...] gora eskalerer igorten!

11. Alemaniarren okupazioa Bardozen

- **Erref**: BDZ-001/020
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 00:45:25. **Bukatu**: 00:49:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian

Laburpena:
Alemaniarrak egon zirenekoa gogoan du. Bere lagun bat urte eta erdiz preso eduki zuten eta Alemaniara lanera eraman zuten. Jean etxeko ganberan ezkutatua egon zen. Harrapatu izan balute, etxeko denak hilko zituztela dio. Haiek agindutako abereak hil behar izaten zituzten. Pasadizo bat kontatzen du, Hazparnen bi lagun hil zituztenekoa.

Transkripzioa
- Eta...gero... alemanak ere ezagutu dituzu alemanen denborak?
- Hem... eta untsa ezautu... erriten beinien oxtien... egun zaut, egun dela hemen mutiko ... mutil... mutil bat... laun bat, urte bat, bo urte bat eta erdi preso hemen. "La réquisition", "réquisition" [...] izan ginen ene... ene adinekoak, klasa [...] izan ginen eta launak ginen, auzo bat, hor. Ta Alemaniaat "passer le... le conseil de révision", ta hantik zunbeit urte... eunen bürien, "aller en Allemagne", Alemanian juan gindian... "obligatoire". Ta hua ez zen ideia joaiteko. Ein nian Espainian juanen gindela biak elgarrekin... Ba, bana ni, ene klasa, ez eundano galdeina izan, eta hua juan behar galdeina. Erran nakon: "Puta, "oui" [...] egonen niz gordetüik ene etxean, gordetüik egon beharkoik! "Ah diu vivant !". Jin zen, jina hunat eta urte bat et erdiz hor, hemen, ganberan egona duk preso e. Jatekoa [...] gindakon goiti.
- Ez joateko Alemaniara?
- Ez juaiteko Alemaniaat. Ez zen irri... irri eitekoik. Atxeman banute hor, etxekoak denek garbitzen ginduzten eta, edo Alemaniaat juiten. Ez zen irri eitekoik e.
- Eta zer egiten zuten hemen alemanak... alemanek?
- Pua, ddeus! Jan eta edan! Erriten bazuten errekizizionia ...erriten... erriten gindakoten behar zituztela /behartzuztela/ lau behi edo idi, hiltzeko, ah! Merak behar zien atzeman nunbait, lau edo bezaiñ [...] kamiunaekin kargateko lehen jin eta adio e! Ni Hazparnen banitien launak, bah... kusi, kusiaan, ene kusi baten launak. Joan, "le couvre-feu, huit heures, le soir", eta hek egun... egun zien ostatien zortzi oenak pasatiak. "Ah diu vivant !". [...] kanpoat aleman patruilla bat. Ein dakote keinüik gelditzeko, ez zuten etxeat juaiteko hantik eta borta hortaat! Lasterka abiatu, etxeat sartu nahiz. Biak garbitu zuzten han, garrikaan erdian.
- "Couvre-feu"a ez baitzuten errespetatu?

- Ah, ah... ez beiten, ez zen... oai erriten dute gazteria ez dela atxiiten ahal. E ni jin balite berriz ez [...] hek ez zin gatuik... gatuik, gatuik ez xakurrik e! Garrikan, dena garbi!
- Eta, izan... ez ziren nahasten hemengo jendeekin alemanak?
- "Dià, dià, dià, dià". Bah, bazen zunbeit... pff... emaztekin eiten zutenak. O... ootan bezala, hori bezala ere.
- Eta haurrak hola sortu izan dira hemen?
- "Des prostituées".
- Bai... Eta haurrak edo sortu izan dira hola? Alemanen haurrak, sortu izan dira, hemen?
- Bah... sortu izan ba... Hemen kanpaiñetan halere ez, terrible ez. Bana hiri hoietan eta izan ditu / izantu/ ba, bistan dena duk.

12. Etxeetako eta dendetako jostunak

- **Erref**: BDZ-001/023
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:51:22. **Bukatu**: 00:53:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Arropa asko egiten zen etxeetan. Oihalak saltzen aritzen ziren batzuk etxez etxe. Baziren jostun profesionalak.

Transkripzioa
- Beztimenda eta orain bezala beztitzen zen? Orain bezala, jantziak eta... orain bezala ziren edo...? Non, etxean berean egiten ziren, erosten ziren?
- Eiten zen "beaucoup" etxen, etxetan. Pasatzen zien eta... "des commis voyageurs", "Dames de France" eta hoiek... Pasatzen zien eun bezala, hi bezala eun, ta baziten liburu handi bat, "avec des, des... des échantillons". Ordien hautatzen zien emazte... emaztekiak beti. Zunbat behar zuten: metra, galtza pare baten iteko eta koxtüma baten iteko edo ze... Ta geo igorten zuten etxeat... "avec la départementale et..." estofa. Ta bazen biziki dendari, eiten zutenak koxtumak eta etxen. Oai, oai bano gehio. Oai ezta gehio hoi.
- Eta etxeetan denek egiten zuten? Edo baziren espresak dendariak...?
- Ba, ba. Dendariak, ikasi zutena ere. Ikasia zutena... zer... ofi...Bah ofizioa ez zen! Guk ukan dugu hemen, kaskoinak [erraiten diote] ez zakiten batee eskuaraik, bazuten... hiru aprendiz bazitien... ai zienak lan... lanian. Bazien bortz dendari.

13. Etxeko erleak

- **Erref**: BDZ-001/024
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:53:01. **Bukatu**: 00:56:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Erleak bazituzten etxean eta Jean arduratzen zen haietaz. Emaztea ziztatzen

zutenean, kalte egiten zioten baina berari ez. Ezti asko batzen zuten eta argizaria ere bai. Etxearen aitzinean izaten zituzten. Eztia ogiarekin jaten zuten. Erleak ezin ziren saldu, eman egiten ziren.

Transkripzioa
- Eta erleak bazenituzten? Erleak?
- Ba, ba, ba [...] e.
- Eta nor okupatzen zen erleetaz?
- Au, ni! Eta [...] oai [...] suñatü garbitia oaik ee, hiltzen beitzakote. Emaztiak ez zitian hürbil. [...] balin bazüten, heldu zen muzturte! Eta ni jüiten ahal nitian, bülüzik, ez zaute ddeus einen! Ukan ditiat /ukantiat/ berrogoita zun... bah, gehio ere ba, zerak... lehenaoko...ze...einak... nola erraten dakote eskuaraz... "avec des tires" einak... "des ruches anciennes, quoi". Ukan [...] bertza handia, berrogoita hamar pinta...atxiiten diena, ukana [...], sukalde hunen erdian betiak...
- Eztiarekin?
- Ba, eztiaekin.
- Eta egiten zen bertze zerbait? Erleekin eztia bakarrik egiten zen edo...?
- Eztia eta, edo... "la cire".
- Eta zertako ibiltzen zen hori zira?
- Bo e, kameretan ez zen "carrelage"aik oai bezala e. Ez zen kanb... ganberak edo sukaldiak edo denak, taula...kin, einak zien.. Emaztek han e... ur, urtu... urtu poxi bat, ta eman, edan eta... eta freta!
- Eta non atxikitzen ziren erleak? Etxetik urrun edo...?
- Bah, ez, ez, ez. Bo, hemen [...] batzu, pff... hogoita hamar metre, hor berien, etxe [...].
- Eta batzuek erraten dute norbait hiltzen zelarik etxe batean, zenbait tokitan e, joaten... joan behar zela erleei erratera. Hemen egiten da?
- Bo...
- Ez?
- [...] eundano entzun hori.
- Eta eztioi gero... eztia, zer egiten zenuten? Etxean atxiki, edo saldu, edo...?
- Ba, etxe, etxean atxiki.
- Eta nola, ba, hola-hola jaten zenuten? Ogiarekin edo esnearekin edo...?
- Ogiaekin. Ogiaekin, poxi bat. Poxi bat "cuillère", zopako "cuillère" bat, edo biga, eman azitan eta ogiaekin te! Ez zen gaixtua, ez debruia. Zeen erten zitena, hemen lehen erlia ekarri gindiena, ez zela erosi behar, ez zela pa... paatu behar diruz. Behar zela zeit eman. Zuk ekarten zinien erle bat, bee kofoiñaekin, eta guk eman gindakon, e... egür, egur, egurra, berotzeko egurra. [...] eta ez ziena sosik nahi diruik. [...]
- Eta zertako ba?
- Bo...!

14. Herriko bestak

- **Erref**: BDZ-001/026
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:57:02. **Bukatu**: 01:00:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Herriko bestak Bardozeko plazan ospatzen ziren. Berrehun bikote ere izaten

ziren dantzan. Baziren dozena bat ostatu. Orkestrak jotzen zuen. Herriko gazteriak antolatzen zituen bestak, hogei urte betetzen zituztenek.

Transkripzioa
- Bestak-eta egiten ziren?
- Bai, bai, ba. Eta pesta... ba oai bezala, oai bano gehio ba. Bo... Bardotzeko plazan, elizaan ondoan, pff... eiten du diela berrogoita... ba eta hiutan hogoi urte ere ba. Bazien beharbaa... bo, zonbat behar nuke erran? Berrehun kuple...
- Plazan?
- Plazan, dantzan ai zienak denak! Xaharrak, hiutan hogoi, hiutan hogoi hamar urteko xaharrak eta oro dantzan!
- Denak, zahar eta gazte?
- Ez zen, ez zen baten posatzeko leküik e! [...] izana zienez Bardotzeko plazan, ezta, ezta ttipia. Eta bazen, bon, zonbat ostatu bazien? "B(ü)rüntx, euh... chose... là-bas... au quartier d'Ibarre... le Ttunttur, B(ü)rüntx, Lambert, à la Place y'en avait trois, quatre...". Bazien, Bardotzen, hamar... hamar...ba...ba, dozena bat ostatu! Eta denak bizi. Puf, bee... ostatüko errebenioaekin.
- Eta zer, zer musika egiten zen, izaten zen? Akordeoia edo hola edo...?
- "Dià". Bazen, bai, bai, ba bana bazien sei... sei müsikari e. Or... or... orkestra.
- Eta nork egiten zituen besta horiek? Nork antolatzen zituen besta horiek?
- Herrikoon... e.. gazte, gazteriak. Urten izan... izan niz, oküpatü niz hortaz aski [...] Aurten, hogoi urteko edo hogoita bat urteko klasa bat, helduun urtien, beste... gaztiek berriz, ez sekula berak. Sanja... sanja urte oroz.
- Horiek antolatzen zituzten bestak orduan?
- Bai, bai, bai. Geo, gu merian eta okupatzen gindelakoz, emi... emiten gindien, herri, herriak emiten zien peza bat. Ezta, ordü, ordüko, pff... sosa balin ba... Eman dezaun [...] bost ehün mila [...]. Eta gio, "on lui faisait le feu d'artifice aussi.". Hua, herriak, merak [...] zien. Bah, merak... herriak! Herriak. [...] pesta ederrak eiten zien. [...]

15. Elizako abesbatzan kantuan

- **Erref**: BDZ-001/027
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 01:00:14. **Bukatu**: 01:02:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Elizan abesten zuten abesbatzan, neska zein mutil. Erretorea eta bikarioa izaten ziren. Euskarazko kantuak abesten zituzten eta jaiak aurretik entseguak izaten zituzten.

Transkripzioa
- Kantuz-eta aritzen zineten?
- E! [...] ginden, hasteko elizan. [...] niz, zonbat, berrogoita hamar urte segurik, elizan. Baginden... ba, berrogoita hamar bat [...], següriz ee, neskatxa. Eta gu, gizon... ba... baginden, hogoita hamar bat segurik. Oro, [...] ginden denak kantuz, eiten zien, entzun, entzuten, bazter [...] Eta hori apeza okupatzen zien, ba, bazen bikaria... Erretora ta bikaria.

- Zer zen diferentzia erretorea eta... zer zen erretorea eta bikarioa, zer ziren diferente?
- Erretora zen... nausia! Bikariak, eiten zien... erretorak erriten ziena. Eta erre... bikaria, usu, beti ere, oküpatzen zen hori "euh... la chorale et... la clique". Klika ere izan da Bardotzen, pff... berrogoita zunbait... Kleronia ta tronpeta ta kordesa eta pff... denak [...] die oai oro.
- Eta kantuak eta mezan, zer ziren? Frantsesez?
- Bo, latin... "du latin"... anhitz, frantsesez ere, eskuaraz ere.
- Eta bertzeenez, kantuak euskaraz eta kantatzen zenituzten? Ezagutzen zenituzten?
- Ba, "et oui"... ezautu behar! Eiten zien errepetizioniak, pff... peste, pestetako, zunbat errepetizione eiten gindien? Par... parti aatseko zortzi oenetan, lan, lanak ein eta, gauerdi oren bat artio! Eta zunbat aldi? Hamar aldi segürik ikasteko kantu bat! Bo...
- Eta... eta elizaz kanpo, bertzenaz, bertzalde, kantuak eta, bertsolaririk edo bazen?
- Ez. Ez, ez. Ez, ez... eliza, elizatik, elizan zen. Bikaria oku... okupatzen zen, gehienetan.

16. Alemaniarren behalekua

- **Erref**: BDZ-001/029
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:03:50. **Bukatu**: 01:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian

Laburpena:
Alemaniarrek Bardotzen behaleku bat eraiki zuten.

Transkripzioa
- Alemanak Bardotzen eina zuten, gehienik Bardotzen izan da, hori meria... meria [...] bazen, bazien, "euh... des..." abar... abar batzu oono, "Château Celhabe", hori kakinatia, denak rüinatiak. Eta alemanek, hor Bardotzen ein dute bee, geo bazuten pundu bat eina, surbeillatzeko inguriak, eundano hortako gorena, "la butte de Miremont". Han eina zuten "l'observatoire", surbeillatzeko heian bazenez beste tropaik [...] zuten geo zeit. Bidaxünen, pff... ez da izan, ez dut, ez dute ukan. [...] interesatzen, dudaik gabe. Oaarren, ez zuten [...]

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-18

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com